

KOSTUAK

Gure enpresako kostu finkoak hurrengoak izango dira;

App-a bukatu ondoren, app hau google play-ean edukitzean 25 euro kostatzen du urtean eta app store-ean 99 euro. Horretaz gain, Google-ekin adostutako hilabetero ordaindu beharreko kostu finkoa egongo zen, beraiek gure app-a sortzen lagundu digutelako ("Mobincube" bitartez app bat sortzeak hilabetero 19,99 kostatzen badu, Google-ekin seguruenik pixka bat garestiago izango zen). Beste kostu finko bat, teknikariari eta bulegoan gurekin finantzak eramango dituen pertsonari ordaintzea izango zen.

Kostu aldakorrak:

Publizitatea, app-ak arrakasta handia ez badu, publizitatean diru gehiago inbertitu beharko zen.

Enpresaren arrakastaren arabera baita ere, lanesku gehiago kontratatzearen kostuak egongo ziren.

Ez da eskala-ekonomikorik egongo, app-a erabiltzen duen pertsona baten kostua beti finkoa izango da, noski beti erabili dituen zerbitzuaren orduen kopuruaren arabera.

Balioan oinarritutako negozio bat izango gara, kostua minimizatzea ez da izango gure interes handiena baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea, gure app-aren zerbitzuaren kalitatea zainduz.